

Telebista itzalezinaren ipuina

Bazen behin, animaliek hizketan zekiten garaian, txakurrak ortozik baina katuak txarolezko oinetako arrosekin zebiltzan garaian, beraz ez hain denbora zaharretan ere, ume bat, nerabe bat, telebistari itsatsita bizi zena, atzamar erakuslea, erpuruaren ondoko eria telebistako aldagailuari josita zeukana.

Ez. Ez zen jaiotzatik hala. Ez zen amaren erraietatik munduratu aldagailua eskuari atxikirik. Normal jaio zen. Urduri munduratu zen, eta ipurmasailetan lehen txaloa jo ziotenean, negar batean lehertu ziren haren birikiak.

Jaio zenean, eguna zetorren gauaren ondoren. Heze ernaltzen zen lurra, euria egindakoan. Hizketa normalak ziren txakurren zaunkak, eta ulergarriak. Katuen miauak berdin, ozenak eta konprenigarriak. Iargiaren eta eguzkiaren distirek ez zezaketen iragarri gerora etorriko zena.

ALDAGAILUA JOSI ZITZAIONEKOA. Bada, normal abiatu ziren gauzak. Baina, bizitza lege, hazten hasi zen haurra. Hitz egiten ikasi zuenean, telebistari begira jartzen zuten gurasoek, "bake pixka bat" edukitzeko. Eta, isildu egiten zen umea.

Gerora, maitasun goxoetan aritu nahi izaten zutenean nagusiek, Disney faktoriak ekoiztako film melenga horietako baten aurrean jartzen zuten haurra, ezti-jarriotan isildu zedin.

Nerabazarora heldu zenean, kontuak ez zeukan jada aterabiderik: ezin zitzaion aldagailua kendu eskuetatik, ezta ur irakinarekin ere.

Ordenagailu bat erosi zioten gurasoek, ea telebistatik askatzen zen eta probetxuzko zerbañt egiten ikasten zuen. Euria itsasoan.

Norbaitek aholkatu zien hobe zutela auto telegidatu horietako bat erostea, asko gustatzen omen zitzaizkiela nerabeei halakoak. Saio alfer eta hutsala.

Itsaspeko ontzi nuklear itxurako bat erosi zioten. Eta moto elektrikoa, bateriadun horietakoa. Eta MP4a, e-book bi... eta nik zer dakit zer!



INIGO AZKONA



Hazten hasi zen haurra. Hitz egiten ikasi zuenean, telebistari begira jartzen zuten gurasoek, 'bake pixka bat' edukitzeko. Eta, isildu egiten zen umea



irudia:

Antton Olariaga

Medikuetara eraman zuten. Botika konplexuak hartu zituen. Odol eta gernu frogak egin zizkioten. Ebakuntza-gela sofistikatuetara eraman zuten.

– Ez dago zereginik –esan zuten zirujau nagusiak.

Telebistara deitu zuten orduan gurasoek, emititzeari utz ziezaioten. "Horiek pretentsioak!", esan zien Zuzendari Nagusiak.

"Programazioa aldatu!", eskatu zien aitak. "Edo aurkezleak kanbiatu!", amak. "Edo gezurrak kontatu!", izeba mojak.

Etsiak jota geratu ziren denak, bere horretan segitzen baitzuen aldagailuak.

EGUNSENTIAREN ETORRERA. Halako batean, herrialde hartan geratzen zen etxalde bio bakarra bisitatzeraz joan zen familia osoa, Nekazaritza- eta Abeltzaintza-ministro zen aitaxo buru zutela. Eskoltarekin heldu ziren. Burrumba ezinago handiarekin.

Telebista-kamerak han zeuden. Hitzaldia hasi zuen aitaxok. Ondoa zeukan ama. Eta nerabea haiekin zegoen, tribunan.

Halako batean, erakuslean aldagailua josita zeukan gazteak behi urdin baten atzealdean ikusi zuen kortako ate-zirrikitutik. Haren errape jori eta guriari so geratu zen.

Amaren eskua askatu eta kortara abiatu zen. Begiekin segitu zion amak, protokoloak ez baitzion oholtza uzterik ametitzen.

– Probatu nahi al duk? –behia jezten ari zen baserritarrak.

– Ezin dut, pegaturik daukat aldagailua.

– Utzi aukitxo horretan eta ekin lanari.

Behia jezten hasi zen mutikoa. Gero, oiloei eman zien jaten.

Bekorotz eta zirin artean galdu zen aldagailua, betiko.

Hitzaldiak bukatu zirenean, aitaxok esan zion gazteari "zerri-zerri eginda zaude laguna, hau nazka!". Eta amak: "politagoa zinen telebistari begira egoten zirenean". ▢